

49583148R

MUGARIK GABEKO GURE MUNDUA

Garai hauetan, herrialdeen artean muga politikoak banatzen gaituzten mundu batean bizi gara, hau da, herrialde ezberdineko pertsonak taldeka banatzen gara gure artean zerikusirik edukiko ez bagenu bezala. Desberdin tratatzen gara jaio garen lekuaren arabera, baina, batzuetan ahaztu egiten zaigu jaiotza zorizkoa dela eta Euskal Herrian jaio naizen bezala Iranen ere jaio nintzatekeela. Erantzun beharreko galdera ea desiragarria izango litzakeen mugarik gabeko mundu bat bada, nire erantzuna hurrengo hau izango zen: Baina, norentzat? Desiragarritasunaz hitz egiten badugu mugak dituen mundu batean, erraza da erantzuna: muga hauek zeharkatu nahi ez dituzten jendearentzat ez litzateke desiragarria izango, hainbat eskubide galtzearen aurka baitaude. Baina, mugak kentzearen beharra duten horiek, deseatzten daude haientzat ezinezkoa den egoera hori iristea. Desira edo nahi hori modu arrazional batean ulertu behar dugu, ez nire izenean baizik eta edonoren izenean desiratzen dudana edo desiratu ahal dezakedana. Lehen esan dudana bezala, modu honetan taldeka antolatuta gaude baina Kantek zioenez gizatasunak sortzen du mundua eta guztiok gara mundu honen jabe. Beraz, guztiona den mundu honetan kendu behar egingo genituzke mugak?

Etikoki galdera horri erantzun onena mugen desagerraraztea litzake, baina zergatik? Eta hala bada, zer da atzera botatzen gaituenak? Lehenik eta behin garrantzitsua da mugen eginkizuna adieraztea. John Lennonek bere abestian dioen moduan ez da zaila herrialderik gabeko mundu bat irudikatzea, mugarik gabeko mundu bat, baina hala al da benetan? Gai gara mugarik gabeko mundu bat irudikatzeko eta honen ondorioak zein izango liratekeen imajinatzeke? Argi dago mugarik ez egotearen aldaketa horrek eragin handiak izango litzatekeela gizartean. Muga hauek gizartearen banaketa sakon bat adierazten dute, batez ere bi taldetan: alde batetik muga hauetaz konturatzen ez diren biztanleak daude, ez direnak herrialdez aldatu behar, hauek mugen ikuspegi bat izago dute eta muga hauek ematen dizkieten pribilegioetan bakarrik zentratzen dira. Eta beste aldetik muga hauek egunero madarikatzen dituzten jendea dago, hauek mugen alde txarrak jasaten dituztenak dira, eta aurre egiteko moduak bilatzen dituzte, beraz, kontrako ikuspegi bat dute mugei dagokienez. Batzuei pribilegioak eman eta besteei kentzen baidizkiete.

Hasteko, mugen desagerepenaren aldeko argudio bat eskubideen guztizko berdintasunera eramango gintuela da. Pertsona orok gure eskubideak izango genituzke eta ez litzateke nolabait zure, nire eta haren arteko desberdintasunik egongo, mugak kentzerako orduan muga hauek zeharkatu nahi dituztenen eskubideak gurekin parekatzen ari gara eta hori

izango litzake nolabait justizia globala. Justua baita denok herrialde berdinetan egoteko aukera izatea. Mugekin zu zoriz jaio zaren herrialdean egoteko eskubidea soilik duzu eta zure herrialdea gerra, krisi, epidemia edo bestelako arazoren bat zeharkatzen ari bada, ez duzu mugitzeko aukerarik edo mugikortasun hori lortzeko arazoak dituzu. Zure bizitza arriskuan egon arren ezin dituzu mugak zeharkatu, beraz, gizaki bezala duzun bizitzeko esubidea ere kentzen ari zaizu. Adibidez, Ukrainiako gerra gertatu zenean, denok prest egon ginen hauei gure herrialdetan sartzen uzten, ez baitzuten beste aukerarik, ukrainian geldituko balira hiltzea da beste aukera. Baina, Iran aldean gerran egon arren mugak dituzte beste herrialdeetara ez sartzeko, beraz, bizitza duin bat aurrera eramateko aukeraz gain, bizitzeko eskubidea kentzen ari zaie.

Bestalde, goiko azalpenekin lotuta, mugak kentzeak gure arteko anaitasun batera eramango liguke, hau da, denok familia bat izango bagina bezala. Historian atzera bagoaz tximinoen garaira, gizaki izatera iritsi baino lehen, nia zen garrantzitsuena, ni partikularra. Egiten ditudan gauza guztiak niregatik egiten ditut, nire biziraupenagatik. Ondoren, pauso bat aurrera eman genuen gizaki heinean eta “ni” horretatik gura pasa ginen, gure arteko hiri-tasun bat sortuz, hemen jada egiten dugun guztia gutako guztiontzat da, hau da, kasu honetan nire estatukoak diren guztiontzat. Pauso honera eramán gaituenak da konturatzen garela ez naizela nahiko ni bakarrik mundu honetan bizitzeko, eta besteon laguntza behar dugula. Azken pausua “gu” horretatik “zuek” horretara pasatzea da, gauzak ez guregatik eta guretzako baizik eta zuek eta zuentzako egitera, eta hau da nire ustez mugak kentzeak ekarriko lukeena. Hainbeste kostatzen zaigun pausu hau emateko beharrezkoa da mugak irekitzea, bestela “gu” horretan geldituko gara. Hau da azkenean anaitasunak adierazten duena, baldintza hoberenak nahi ditugu beti gure anaiantzat eta horretarako denak izan behar gara anaiak, bai guk eta bai zuek, zuek ere hobereña nahi izango zenuketelako guretzat, hor dugu gizatasunaren erantzuna. Honela, denon arteko gizatasuna lortuta, eskuratzen da zorientasuna.

Hirugarrenik, mugak kentzearen aldeko argudio bat galdera bakar batekin azalduko genuke: gure gizarte neoliberal honetan gauza materialak herrialdetik herrialdera garraiatzen ditugu mugarik gabe, zergatik ezin dugu hori pertsonekin ere egin? Gizarte globalean gauza materialak mugarik gabe dabilta, eta hortik onurak besterik ez ditugu lortzen, ez litzateke berdina gertatuko gizakiekin? Gizakien mugikortasuna ere eskubide bat izan beharko litzake.

Beste perspektiba batetik begiratuta, jende askok pentsatuko luke mugak kenduko bagenitu kaos egoera batera iritsiko ginatkeela, natur egoera batera Hobbesek deskribatzen duen

modura. Bertan, estatuek ez lukete nahiko indar edukiko honi aurre egiteko. Alde batez egia izan daiteke, izan ere egoera okerragoetan dagoen jendea egoera hobekak ditugun herrialdeetara etorriko ziren eta herrialdeen arteko biztanle-tasaren desoreka batekin topatuko ginateke. Baina errealitatea aztertzen badugu, gaur egun ere natur egoera batean aurkitzen gara baina guztion artekoa izan beharrean, estatuen artekoa litzateke. Gaur egun, estatuen arteko natur egoera bat dugu non gerra asko ikus ditzazkegun eta hau geldiarazteko konponbidea mugak ireki eta estatu mundial bat, estatuen estatu bat osatzea da. Estatu honetan garrantzi handiko erabakiak, erabaki unibertsalak, hau da, denoi dagozkigunak, hartuko lirateke eta beste estatu partikular guztien gainetik egongo litzateke. Estatu mundial honek beste estatuak kontrolatuko lituzke, hauen arteko berdintasuna bermatuz.

Amaitzeko, argi utzi nahiko nuke John Lenonnek deskribatzen duen moduan desiragarria izango litzakeela mugarik gabeko mundu bat. Mugarik ez balego ez legoke gure arteko ezberdintasunik denok eskubide berdinak izago genituzke, baina horrek zer alde txar ditu? Mugen atzean ongi dagoen jendeari mugak kentzen badizkiogu, gaur egun ditugun pribilegio batzuei ere uko egiten ari gara. Modu egoista batetik begiraturaz jende asko ez legoke prest muga hauek kentze egoera hau amets bat bezala ikusi beharrean, amets gaizto bat bezala ikusten dutelako. Izan ere, uste dute mugarik gabe pribilegio batzuei uko egiten ari direnez, pertsonalki haien egoera okerragoa litzakeela. Adibidez, lana kenduko zitelako, baina lana kentzen badiete, lan horretan hobekoak direlako da. Eta ez al ditugu nahi gure gizartean ahalik eta mediku, irakasle, epaile edo bestelako langile hoberenak? Gizartean kolektiboki aurrera egitea da idealki zorientasuna lortzeko modua, ezin ditugu besteak atzean utzi, beraiek ere, Kantek zioen moduan, gizaki diren heinean, gu bezalaxe munduaren jabe baitira.

Ondorioz, esandako guztia kontuan harturik bada garaia azken galdera honi erantzuteko, desiragarria izango litzateke mugarik gabeko mundu bat? Bai. Mugak pertsona batzuegan sortzen dituzten kalte eta injustiziaz kontziente izan behar gara muga hauek arazo handirik sortzen ez diguten pertsonak izateaz zorte izan dugunok. Baina, zoritxarrez baliteke mugarik gabeko mundu baten egoera hau gure ametsetan irudikatuko dugun zerbait bakarrik izatea. Herrialdeen artean jartzen ditugun mugak gizaki gisa aurrera egiteko jartzen ditugun oztopoak baino ez dira eta.